

opusdei.org

Urte asko eman ditugu gaixoen bizimodua hobetzeko borrokan

Gipuzkoa Donostia Kutzaren
gizarte-ekintza den Institutu
Onkologikoak argitaratu du Jose
Maria Irigaray sendagilearen
“Nire bizitzako istorioak”
liburua

2006 Mar 19

Jose Maria Irigaray Urrutiak, 77
urteko medikuak, bere bizitza eta
lan-ibilbideko oroitzapenak jaso ditu

liburuan. Berrogeita hamar
hamarkadaz geroztik aritu da lanean
Gipuzkoako Institutu
Onkologikoarekin, Institutu Radio-
Kirurgikoa zenetik. Isotopoak,
telekobaltoterapia, kobalto-bonba eta
abarreko urteak ziren. 1963an
Institutu Radio-Kirurgikoko
Medikuntza Nuklearreko buru eta
institutuko zuzendariordea izendatu
zuten.

Bere oroitzapenetan Opus Dei nola
ezagutu zuen kontatzen du: 1950ean,
Zaragozan medikuntza ikasketak
egiten ari zela. Han, Angel Garcia
Dorronsoro eta Opus Deiko beste
zenbait ikasle ezagutu zituen.
Donostiara itzuli eta Fermin
Gastaminza dentistarekin adiskidetu
zen. 1962ko apirilean Opus Deiko
kide bihurtu zen. Irigaray, Conchita
Arrieta Zubillagarekin dago
ezkonduta, eta bederatzi seme-alaba
ditu.

Kutxaren Kultur Ekintzako buruak, Alberto Martinez Aramberrik, aurkezpenean dioenez, oroitzapen ordenatu horiek idazkera ulerterraz eta garbian irakur daitezke; testuak aukera ematen dio irakurle aditu eta zorrotzari idazle iaio honen nortasunera zertxobait gehixeago hurbiltzeko.

Norbere oroitzapenak deitu ohi ditugun horiek gehienbat bi oinarri dituzte: norbere bizipenak eta norbere historia profesionalak; biak ezinbestekoak gizonaren bizitza eta beronen lanbidean sinismenez beterik diharduen mediku baten bizitza ulertu ahal izateko.

Bizitzaren ikuspegi pertsonalari dagokionez, azpimarratuta ikusiko dugu familiaren kontzeptua. Jose Mari Irigarayk aurre-aurrean jartzen du familia bere bizipenetan; eta familia da nagusi bere oroimenak gogoratzen dituen lehen

oroitzapenetatik bere heldutasun
gaztera arterainoko ibilbidean.
Irigarayk gogoko du familia, eta
esker oneko agertzen da
famiarekiko, liburu osoan barrena.
Une oro inguruan duen familia horri
ondare positiboa uzteko
ahaleginetan ari da. familiari zor
dion kezka horrek sinismen
sakonenetan du sorburu, berak
apaltasunez eta aldi berean
trinkotasunez, erakusten dituen
sinismenetan, alegia.

Profesionaltasunari begiratzuz,
Irigaray doktoreak lotsa faltsurik
gabe kontatzen dizkigu bere
liburuaren orrialdeetan zehar bere
bizipenak: erraztasun handirik
gabeko hasiera -garai haiek halakoak
izan-, emeki-emeki bizitza
profesionalean lortutako arrakasta
eta medikuntzaren alorrean
erdietsitako onespina eta, azkenik,
instituzio eta profesional mailako
hartu-eman on eta zabalak. Eta alor

profesionala eta pertsonala lotuz,
bere ongi egiteak, egiten jakiteak eta
egite atseginak hainbat eta hainbat
gaixo eta gaixoen familiakoengan
utzitako oroitzapen atsegina.

Irigaray doktoreak laster egin zuen
bat hainbat urtetan zehar -Gipuzkoa
barruan eta baita kanpoan ere-
jendeak ekimen zoragarritzat jo ohi
duen erakundearekin, kutxaren
Gizarte-Ekintza distiratsu batekin,'
Radio-Kirurgiko"arekin, gerora
"Onkologiko"a izatera iritsi
denarekin, horixe baita azken
urteetan mundu osoak,
profesionalak barne, erabiltzen duen
izendapena.